



AZKEN UHOLDEAREN ONDORIOEI BURUZKO INFORMAZIO GUTUNA

Lerro hauen bitartez, zuetako bakoitzarekin partekatu nahi dut pasa den abenduko uholde izugarriaz geroztik bizi izan dugun zurrumbiloa. Uholdearen ondorioak, aurrera eraman diren jarduerak eta oraindik egiteko ditugunak.

Azaroaren 28an eta 29an izandako elurtearekin hasi zen dena. Honi gehitu behar diogu hurrengo egunetan ia etenik gabeko euri jasa, harik eta abenduaren 9an eta 10ean izandako uholde handiarekin amaitu zen arte. Orduan, Arga ibaiak kota historikoa hartu zuen.

Abenduko zorigaiztoko egun horretan, erregistroak daudenetik gogoratzen diren uholde garrantzitsuenaren lekuko izan ginen. Urak 3,52 metroko altuera hartu zuen eta Arga ibaiaren emaria segundoko 603 metro kubikokoa izan zen Uhartan. Horri gehitu behar zaio Ultzama ibaiaren ur-goraldi ikusgarria. Zorionez, ez zen zoritxar pertsonalik izan, baina kalte material handiak izan ziren. Jakina denez, urak eta lohiak Inzoa, Zumedia, Zakoia, Ugarrandia, Ezpeleta eta Martiket inguruak estali zituzten bi egunez. Gogoan izan behar da Arga eta Ultzama ibaiak bat egiten duten tokiak kalte handia eragiten duela Martiket inguruan. Gune horretan pairatu ziren partikularren kalte garrantzitsuenak. Uharteko baratzeetan kalteak hauek izan dira nagusiki: bideak haustea, hesiak eta banaketa-harresiak erortzea, burdin hesiak, negutegiak, etxolak urpean uztea eta lanabesak galtzea edo hondatzea.

Uhartan, zorionez, inguruko beste herri batzuetan gertatutakoaren aurrean, ez da inolako eraginik izan dendetan, lurpeko aparkalekuetan, igogailuetan, ibilgailuetan edo atarrietan. Kalterik handienak Ugarrandia udal-instalazioetan izan dira: Zerbitzu Anitzeko Etxabea eta igerilekuetan. Igerilekuetako makinak, ponpak eta motorrak, koadro elektrikoak, kimikoak kudeatzeko biltegiak eta hodiak suntsitu egin dira edo oso kaltetuta geratu dira. Zerbitzu Anitzetako materiala, kirol-jardueretarako 1. eta 2. aretoak, etab. sekulako hondamendia.

Ondorioz, kalteak ekonomikoki oso handiak dira. Ugarrandia kirol-instalazioetan bakarrik, lehen kalkulua 450.000 € ingurukoa da.

Zuekin partekatu nahi ditugu egindako esku-hartze nagusiak:

Hasiera batean, pertsoneri eta animaliei kalterik ez egiteko jardun zen:

- Arga pasealekua eta zubiak itxi zitzaizkien oinezkoiei eta txirrindulariei.
- Atarrabiako errepidea moztea, urak pertsonak eta ibilgailuak arriskuan jar ez ditzen.
- Etxabe, garaje, igogailu eta baratzeetako jabeei abisua ematea, animaliak husteko eta kalteak prebenitzeko.

Uste izatekoa denez, udaltzainen zerbitzuan herritarrei arreta eta larrialdiei aurre egiteko partek izugarri igo ziren.

Une horretatik aurrera, arreta ahal zen neurrian kalteak murrizten saiatzen jarri zen:

- Ura Ugarrandian sar ez dadin ahalegin guztiak egin. Ura ponpekin ateraz 84 orduz.
- Ibilgailuetan kalterik ez eragiteko, ibaiaren inguruko eremuetatik atera.
- Zerbitzu Anitzetako etxabetik material garraiagarria eta Ugarrandia kiroldegitik kirol-materiala ateratzea.

Aurreko neurri guztiak **Atondoa**-n daude jasota, uholdeen aurrean babesteko udalak duen aplikazioan. Aplikazio horrek harpidetutako biztanleei jakinarazten die zein larrialdi-mailatan gauden, eta une

bakoitzean egiten diren ekintzak deskribatzen ditu. (Harpidetu nahi izanez gero, zure mugikorraren zenbakia udalaren webgunean sartu behar duzu, eta, ondoren, SMS baten bidez bidaltzen dizuten kodea, eta informazio eta alerta guztiak garaiz eta doan jasoko dituzu).

Azpmarratu behar da alerta-aldi osoan etengabe egon ginela harremanetan Babes Zibileko Koordinazioarekin, Foruzaingoarekin eta Nafarroako Gobernuarekin.

Ur emaria bideratzen hasi zenean, ura kendu ondoren garbiketa-lanek markatutako hurrengo fasea hasi zen:

- Kiroldegi-igerilekuetako etxabea, frontoia eta zerbitzu anitzeko biltegia garbitzea.
- Udalaren kirol-instalazioak eta Zerbitzu Anitzeko lokala konpontzen hastea (gaur egun oraindik ez da erabat amaitu zeregin hori).
- Material grafikoa biltzea eta txostenak idaztea udalak dituen aseguruiei eta Aseguruen Partzuergoari helarazteko, uholdea ofizialki **Hondamendi Natural** izendatu baita.
- Udal auzolana bide eta baratzeetan, baratzezainei baratzeak eta bideak garbitzen laguntzeko.
- Udalerriko kalteei buruzko txostenak, Gobernuaren Ordezkaritzara bidaltzeko.
- Kaltetutako pertsonen zerrenda, garatu beharreko ekintza posibleei eta dokumentazioa aurkezteko epeei buruzko aholkularitza emateko.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu uholdeen ondorioak ahalik eta gehien arintzeko goiz, arratsalde eta gau askotan lanean egon diren udal langileei.

Eskerrak eman nahi dizkiogu, halaber, Atarrabiako Udalari, gure instalazioak martxan ez dauden bitartean, Ugarrandia instalazioetako abonatuak beren instalazioak doan erabili ahal izan ditzaten hitzarmen bat sinatzeko emandako erraztasunengatik.

Eguesibarreko Udalari eskerrak ematen dizkiogu Uharteko Udalari bere instalazioak alokatzeko hitzarmena sinatzeagatik, Eskola Vitaeko ikasleek beren prestakuntza akademikoarekin jarraitu ahal izan dezaten.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu guztioi uholdeak gogorren jo dituen pertsonetikiko erakutsi duzuen elkartasunagatik, elkartasun hori baita uhartearren bereizgarria. Era berean, guztiek adierazitako pazientzia eta ulermena balioetsi nahi dugu, eta jarrera hori beharrezkoa izango da gutxienez igerilekuen erabilerari dagokionez; izan ere, martxoaren amaierarako irekitzea aurreikusten dugu. Hala ere, bai hori bai eragindako zerbitzuak berrezartzeari buruzko beste xehetasun batzuk ohiko bideen bidez jakinaraziko dira.

Agur bero bat
Alfredo Arruiz Sotés
Uharteko alkatea